

Reina Regente, 3
20003 Donostia-San Sebastián
Tel: +34 943 48 11 66
Fax: +34 943 48 11 72
e-mail: sansebastianturismo@donostia.org
web: www.sansebastianturismo.com

Turismoko erreserben zentrala:
Tel: 902 443 442
e-mail: reservas@sansebastianreservas.com
web: www.sansebastianreservas.com

bestelako begirada

Eskulturak Donostian

Arretaz begiratzekoak

Hiriko biztanleak dira horiek ere. Burdinazkoak, brontzezkoak, grani-tozkoak, hormigoizkoak edo marmo-lezkoak. Donostiako txokorik ezuste-koenetan egingo dugu topo euren es-presioekin, galdezka izango bagenitu bezala. Gure oroitzapenetan tartetxo bat eskatzen duten iraganeko pertso-naien aurpegiak dira, edota gure ga-raiko kezkak islatzen dituzten sortzai-leen lanak.

Hiriko altzari hutsalak balira, maiz iku-si gabe begiratzen baditugu ere, esa-nahiz betetzen dute guztiona den es-pazioa. Gure erreferentzia kolektiboe-tako biztanleak dira.

Ezagunak edo aurkitzeke ditugunak, bistakoak edo enigmatikoak, deiga-rriak edo zuhurak, gida honetan aurkeztuko ditugun atari zabaleko 56 eskulturetako bakoitzak irudime-na askatzera gonbidatzen gaitu, gu-re inguru hurbilenekoa -Donostia, alegia- arretaz eta beste begirada batez behatzera.




1 Haizearen Orrazia

Eduardo Chillida

Kokapena: Eduardo Chillida Pasealekua (2-B) | **Data:** 1977

Beste batzuetan ere fruitu oparoak eman zituen Eduardo Chillida eta Luis Peña Ganchegui arkitekto donostiarraren arteko lankidetzatik Portu zen badiaren mutur batean itsasorantz zabaltzen den gune liluragarria. Arkitektoak bikain integratu zituen kostaldeko orografia zakarrean granito arrosaz eginko zenbait plataforma, harmaila eta espazio. Gune horren muturrean kokatu ziren Chillidak sortu eta burdin trinkoan egindako hiru eskultura handiak, hamarna tonakoak. Eskultoreak bere jaioterriari oparitu zizkion ipar-mendebaldeko haizea orraztu nahirik-edo eginko eskulturak. Izan ere, urteak zeramatzan Chillidak ideia lantzen, harik eta 70eko hamarkadan, Donostiako Udalak eskatuta, gauzatu ahal izan zuen arte, 1982 urteaz geroztik eskultorearen bizileku izandako etxetik hurbil, ezohiko intimitatean bizi dira elkarrekin natura eta gizakiaren arrastoa. Bitxia da espazio hau bere momentuan inauguratu ez izatea, 30 urte beranduago inauguratu dute omenaldi sail baten barruan. Segur aski Donostiako toki magikoena den horretan, haizeak burdina ferekatzen du eta itsasoak, berriz, harria zeharkatzen du zoladuran eginko zuloetan barrena.



Eduardo Chillida

1924-2002

Haren arrastoa

Ohikoa zen Chillida Kontxan edo Ondarretan barrena pasieran ikustea... Eta oraindik ere ikus daiteke haren irudia, ibilbide hori zipriztintzen duten eskulturak direla medio. Hala eta guztiz ere, museo soila baino gehiago ere baden Chillida-Lekun jabetu daiteke bene-benetan Chillidaren indar sortzaileak, Donostiak gehiegi urrundu gabe.

Donostian jaio zen, 1924ko abuztuaren 10ean, Euskal Herriko zein Europako XX. mendeko abangoardia artistikoaren ikurretako bat izan zen Eduardo Chillida. Gerra zibilko urterik latzenak Parisen eman ostean, osteratutzi eta Madrilen arkitektura ikasten hasteko prestatzeari ekin zion, ikasketak futbolarekin tartekatuz, Errealeko atezain izatera heldu baitzen. Luze gabe, ordea, behin betikoa izango zuen hirugarren bide batekin egin zuen topo: artearekin. 1950 urtean Pilar Belzuncerekin ezkondu, eta abiada geldiezin hartu zuen. Bere obrarik onena -zortzi seme-alabako familia zabala- osatzen hasi zen, lehen bakarkako erakusketak heldu ziren, aurreneko saria, arteari egin zizkion ekarpen pertsonal handiak... Eta, gerora, sakontasun intelektual handiko gizon on hark artetintzari zein askatasun, bake eta tolerantzia nahiei emandako mende erdi luzea, azken alor horretan ere eskuzabala izan baitzen oso.




2 Zeharki

Jose Ramon Anda

Kokapena: Ondarretako lorategiak (2-D)
Data: 1983

Menhir garaikide halako bat osatzen duten hormigoizko hiru zilindroi irregular handiz osatutako lan honi esker, Jose Ramon Anda (Bakaikoa, 1949) eskultore nafarrak Donostiako Eskultura Bienaleko lehen saria irabazi zuen 80ko hamarkadaren hasieran. Ikuslea obra barrutik begiratzera gonbidatzen duen barne-espazioa osatzen dute hiru piezek. Zeharki apaingarririk gabeko transzendentzia puntua jartzen jarraitzen du egun ere lorategi landuak -eta, hondartzarako aproposak diren egunetan, zarata-nagusi diren inguruan.



4 Katalina Erausoren irudia

Mikel Etxeberria

Kokapena: Miramar Jauregiko lorategiak (3-D)
Data: 1993



Moja alfereza

Sanlucar de Barramedatik Ameriketara; Katalina izatek Pedro, Francisco, Alonso eta beste zenbait gizon-ezizen erabiltzera. Gizonezkoa izango balitz bezala egin zuen gerra, harik eta, 1623 urtean, emakumea zela azaldu zuen arte. Aita Santuak berak eman ei zion gizonezko arropak janzten jarraitzeko baimena.

Batere konbentzionala izan ez zen emakume bati eskainitako bustoa, emakume handi baten etxebizitzaren lorategietan kokatua...Hau da, Katalina Erausoren (1592-1650) irudia, Maria Kristina erreginaren udako etxea izan zen Miramar Jauregiko lorategietan. Bietan, Katalina izan zen Kontxa edo Ondarretako hondartzak bereizten dituen muinora heltzen aurrena. Izan ere, lau urte baino ez zituen muino horretantxe zegoen Domingotarren komentuan sartu zutenean. Haren izaera geldigaitza ez zetorren bat komentuko bizimodu lasai eta diziplinatuarekin eta, 15 urte bete zituenean, gizonezkoz jantzi eta ihes egin zuen Ameriketara; hantxe eman zituen bere bizitzako gainerako urteak.

5 Euskal pilotarien omenez

José Alberdi

Kokapena: Gorgatxo plaza (3-E) | **Data:** 1990



Loretopeko muturrak -gatzelaniaz Pico del Loro deitzen zaio, baina izen horrek ez du zerikusirik hegaztiekin, euskarazko toponimoaren endekapena baino ez baita-ez ditu, soilik, bi hondartza bereizten. Erdigunearen eta hiriaren jatorrizko enklabea den Antigua auzoaren arteko muga naturala ere bada, alegia. Eta nortasun sendoko auzo horren bihotz-bihotzean dago, harrizko oinarri baten gainean, Donostiako Udalak eskatuta José Alberdi eskultoreak (Azkoitia, 1922) euskal pilotarien omenez eginiko eskultura.

3 Maria Cristina erreginari omenezko monumentua

Jose Diaz Bueno

Kokapena: Ondarretako lorategiak (2-D)
Data: 1942

Maitasunez gogoratzen du Donostiak Habsburgo-Lorenako Maria Cristina, bera izan baitzen, 1887an, gortearen udaldia Donostiara ekartzea erabaki zuena. Erabaki hark bultzada izugarria eman zion harresi zaharrek ezartzen zituzten mugetatik askatu eta handitzen hasi berria zen hiriari. Alfontso XII.aren emaztea izan zen Maria Cristina, baita erregeorde ere 1885ean hura hil zenetik 1902an Alfontso XIII.a bien semeak erregetza bere gain hartu zuen arte. Donostiak erreginari eskainitako esker oneko erakusgarri ugarietako bat da 1942an Ondarretako lorategietan paratu zuten Jose Diaz Bueno madrildarraren eskultura.





6 Pio Barojaren omenezko monumentua Nestor Basterretxea

Kokapena: Pio Baroja pasealekua (3-E) | **Data:** 1972

Arestian aipatutako Jose Ramon Andaren lanak bezala, Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924) eskultoreak Pio Barojaren omenez sortutako eskulturak ere Donostiako Eskultura Bienala irabazi zuen, 70eko hamarkadaren hasieran. Grisez margotutako txapaz eginiko bloke horizontala sei metro luze da, eta hasiera batean Trinitate Plazan jarri zuten. Egileak, ordea, ez zuen gogoko kokapen hura, eta egun duenera lekualdatu zuten.

Handien artean

Oteiza, Chillida, Mendiburu eta Amable Arias desgertu ondoren, Nestor Basterretxea dugu, Sistiaga eta Zumeta margolariekin batera, duela zenbait hamarkada euskal artea berriro zuten Gaur Taldeko memoria bizia. Basterretxeak, haatik, ez du atzera begiratzen eta, sasoi betean, lan eta lan jarraitzen du.



7 Rafael Ruiz Balerdiri eskainitako estela

Eduardo Chillida

Kokapena: Loretope (3-D) | **Data:** 1991

Obraren izenburua izateaz gain, Besarkada hitzak Eduardo Chillidak Rafael Ruiz Balerdi adiskidearen omenez sortu zuen obraren izpiritua ere islatzen du. 1934an jaiotako Ruiz Balerdi margolari donostiarra 1992 urtean hil zen, eta aurreko urtekoa - 1991ekoa alegia - da metro bateko eskultura. 1992an Miramar Jauregian eskaini zitzaion atzerabegirako erakusketa amaitutakoan, Eduardo Chillidak jaioterriari oparitu zion obra. Erakusketa hartu zuen jauregitik oso hurbil ikus daiteke orduz geroztik, Loretopen.

8

Flemingen omenezko monumentua Eduardo Chillida

Kokapena: Kontxa pasealekua (3-D) | **Data:** 1955

Chillidak hiriari egin zion opari preziatuena den Haizearen Orraziaren eta bihotzeko adiskideari eskainitako Besarkadaren ondoren, eskultoreak Flemingen omenez eginiko eskultura ikus daiteke Kontxa pasealekuan, hondartzaren gain-gainean. 50eko hamarkadan, biziki miresten zituen zenbait gizon Chillidak: Georges Braque margolari frantziarrari, Lucca Paccioli matematikari italiarrari edota, hain zuzen, penizilina aurkitu zuen Alexander Fleming bakterioologoari. Hizpide dugun lanaren originala 1955 urtean egin zuen Chillida. 1991 urtean, Donostiako Udalak eskatuta, Chillidaren oso hurbilekoa zen Joaquín Montero arkitektoak granitozko eskulturak eta horren oinarriak ostatuko multzoa hartzen duten terrazak diseinatu zituen Kontxa Pasealekuan.



Bide-bazterrean

Egungo kokaleku zoragarri heldu aurretik, ibilbide guztiz gorabeheratsua burutu zuen Chillidaren lan honek. Ategorrietako lorategietan jartzeko egin zuen eskultoreak, handik Urgull mendira eraman zuten, hiriko ospitale-gunean eman zuen bolada bat eta, azkenik, urteen buruan, Martutene auzoko bide-bazter batean agertu zen, Chillidak obra zaharberritzera eraman zuen tailerre-tik hurbil. Eta, 1991ean, kokaleku egokia lortu zuen azkenean.

9

Amanaria

Gotzon Huegun

Kokapena: Miramar jauregiko atzeko terraza (3-E) | **Data:** 2004

Jauregi erreala izandakoaren egongelek era guztietako ekintza eta topaguneak egiteko balio dute. 2004ko irailean Donostiako Arte Garaikideko Azoka ospatu zen, jarraipenik izango ez zuen artista plastikoen topaketa. Azoka horretan, Miramar jauregiko atzeko terrazan, itxura femeninoa eta amatiarra zuen Markinako marmol beltzean egindako eskultura bat kokatu zen. Gotzon Huegun Burgos donostiarrek egindako "Amanaria" eskultura hain zuzen ere. Arte lana oso ongi gelditzen zen han eta bertan gelditu zen betirako.



10 Antxon Ayestaranen omenez

Koldo Merino / Bernard Baschet

Kokapena: Zaragoza plaza (6-D)
Data: 1988

1968 urtetik 1986an hil zen arte, Donostiako erakunde esanguratsuenetako bateko zuzendaria izan zen Antxon Ayestaran: Donostiako Orfeoiko zuzendaria. Donostian txit maitatua zen gizonari eskainitako eskultura oso ondo egokitzen zaio omenduari, eskultura-multzo soinuaduna baita. 1988an inauguratuko lanak bi osagai ditu: Koldo Merino eskultore donostiarraren hormigoizko zutabe bikoitza eta, horretan txertatua, Bernard Baschet frantziarraren altzairu herdoilgaitzeko Ahotza eskultura.



11 Mantxako Kixoteren eta Sancho Panzaren eskultura

Lorenzo Coullaut - Valera

Kokapena: Alderdi Ederreko lorategiak (6-C)
Data: 1973



Alderdi Ederreko lorategietako txoko batean daude, 1973 urteaz geroztik, Lorenzo Coullaut-Valera (1876-1932) Sevillako eskultoreak askoz lehenago sortutako Mantxako Kixoteren eta Sancho Panzaren irudi txikiak. Jende askok uste du eskultura hau, artistak Madrilgo Espainiako Plazan ezartzeko egin zituen irudi famatuen eskala txikiagoan egindako kopia hutsak direla, benetan guztiz kontrakoa da. Hau da, Madrilen dagoen Cervantesek sortutako bikotearen eskultura kopia izando litzake eta Donostian dagoena jatorrizkoa. Madrilgo Kixotea eta Sancho Panza egiterakoan, Coullaut-Valerak eredu bat egin zuen eta hori da gaur Kontxa ondoan ikus dezakeguna.

12 Oroimena

Aitor Mendizabal

Kokapena: Alderdi-Ederreko lorategiak (6-C) | **Data:** 2007

“Donostiako hiria terrorismo eta indarkeriaren biktimen omenez”. Hitz hauek euskaraz zein gaztelaniaz irakur daitezke 2007ko Urtarrilaren 30ean, Gandhiren heriotzaren urteurrenean eta Bakearen egunean, inauguratu zen eskulturaren azpian. Terrorismoaren biktima zutenak eta beraiei senitartekoak agertu ziren monumentu honen estreinara. Munduko Biktima Elkartearen eta Donostiako Udalaren ekimena izan zen. Donostiako hirigunean dauden Alderdi-Ederreko lorategietan kokatuta, terrorismoaren biktimei eskainitako eskultura hau brontze eta kobreak egindako hiruki itxurako monolitoez da. Lau metroko altuera dauka eta 1.500 kilo pisatzen ditu.



Zauriak

Aitor Mendizabal artistak azaldu du monolitoez ikus daitezkeen pitzadurek, biolentziak euskal gizarteari sortutako zauriak sinbolizatzen dituztela. Zuhaitz bat egoteak “hilketa batekin bizitzari ematen zaion gelditasuna” iradokitzen du, Mendizabal eskultorearen hitzetan. Mendizabal Caracasen jaio zen eta badauka beste artelan aipagarri bat Donostiako Irun plazan, “Ateak-Puertas” hain zuzen ere.



Jorge Oteiza

1908-2003

Poeta, eskultorea, zinemagilea, saiogilea, ideien asaldatazaila, etorkizuna irudikatu zuena... Hitzak eta datak ez dira nahikoa Oteiza definitzeko. 1908an Orion jaio zela esan daiteke; ume izutia eta familia bere kargura hartu behar izan zuen gaztea izan zela, arkitectura gogoko izan arren medikuntza ikasteari ekin ziona; 30 urteen bueltan arteari hurbildu zitzaioa; Madrilén bizi izan zela, eta 1935ean Hego Amerikara abiatu zela; han, lurrean gidari izan zuen Itziar Carreñorekin ezkondu zela eta, 1948an, Euskal Herrira itzuli zela. Eta gogora ekar daiteke, halaber, ordurako artegintzari emana zela, nahiz eta 1960ean, arte garaikidearen heriotza aldarrikatu ondoren, artegintzatik urruntzea erabaki. Zorionez, emandako hitza jan eta itzuli egin zen, eta artearentzat nahiz bizitzarentzat mila bide berri irudikatzen eta proposatzen jarraitu zuen. Batzuekin haserretu egin zen, askok maitatu zuten eta gehienek, berriz, miretsi egin zuten. Itziar joan zitzaion, zahartu eta mito bilakatu zen, bere obra eta pentsamendua utzi zigun, begirada paregabea, aparteko originaltasuna zuena, eta udaberrian hil zen. Hilezkorra zen, ordea, hil zenerako.



13 Eraikuntza Hutsa

Jorge Oteiza

Kokapena: Pasealeku Berria | Data: 2002

Jorge Oteizaren Eraikuntza Hutsa Donostiako Pasealeku Berrian 2002 urtean paratu bazen ere, 1957an Sao Pauloko (Brasil) IV. Bienalean saritutako hamaika eskulturaz osatutako serieko pieza baten erreproduktzioa da, tamaina handian egina. Hurrenez hurren 12,5 eta 10,5 tonako pisua duten altzairuzko bi zati ditu obrak, eta egurrez estalitako hormigoizko plataforma baten gainean dago jarrita. 90eko hamarkadaren hasieran Oteizak Donostiarekin zuen harremanari berrekin zionez geroztik -zenbait arrazoi tarteko, aurreko urteetan nahiko txarra izan zen harremana-, hainbat kokaleku aztertu ziren Oteizak Donostiako paisaian zuen hutsune ulergaitza betetzeko. Azkenean, artistak berak hautatu zuen kokalekua, eta Donostiak itsasoari irekitzen dion ate bilakatu zuen bere Eraikuntza Hutsa.



Senidetuak

Elkarrengandik urrun eman zituzten urte asko Jorge Oteizak eta Eduardo Chillidak harik eta, 1997an, besarkada baten bidez bakeak egin zituzten arte. Balio sinboliko handikoa izan arren denboran gutxi iraun zuen besarkada haren ondotik, Kontxak senidetu ditu betiko. Badiak, hain zuzen, Eduardo Chillidari esker orrazten du haizea mutur batean eta, bestean, Jorge Oteizaren eskutik irekitzen dio leiho bat itsasori.

14 Ingelesen hilerria

Kokapena: Urgull mendia (4-A) | Data: 1924



Parke bilakatutako Urgull mendiak nekez egingo dio uko izan duen betekizun estrategiko garrantzitsua gogora dakarten bateria, harresi eta armada kutsuko eraikin ugarietan antzeman daitekeen iragan militarriari. Batere apaingarririk gabeko aztarna arkitektoniko sendo eta soil horien oso desberdina da, haatik, maiz sorginduta dagoela ere ematen duen Ingelesen Hilerriko espiritu erromantikoa. Denboraren poderioz, eta mendi-hegalen ezegonkortasunaren ondorioz, kalteak izan ditu eta nahiko narriatuta dago. Plaka oroigarriaren ondoan, Condor Legioko ofizial ingelesak daude lurperatuta. Hiriaren inguruan izandako borrokaldietan, batik bat Oriamendiko guduan (1837), Hernani eta Andoainen artean, hil ziren gehienak. Hilerrian beste bataila batzuetan hildako ingelesak ere badaude ehortzita.

Inaugurazio ospetsua

Berriki zaharberritutako film zahar bati esker daki-gu ospe handiz inauguratu zela 1924 urtean Ingelesen Hilerria. Malcom ontzi ingelesa badian zela, Maria Kristina eta Victoria Eugenia erreginak, don Jaime infantea, zenbait enbaxadore eta hiriko agintariak bildu ziren ekitaldira. Estalki gisara jarritako Donostiako bandera kendu ostean, oroitarria utzi zen agerian. Ingelesez eta gaztelaniaz idatzitako oroitarriak «euren herriaren handitasunagatik eta Espainiaren independentzia eta askatasunagatik bizia eman zuten soldadu ingeles adoretzuak» omentzen ditu.




15 Jesusen Bihotzari eskainitako monumentua

Federico Coullaut - Valera

Kokapena: Urgull mendia (5-A) | Data: 1950

Urgull mendiko tontor-tontorrean dagoen Jesusen Bihotza nekez joango da oharkabean, udalerriko edozein puntutatik ikus daitekeela esan liteke-eta... Agintzari zibil, militar eta elizako guztiak bildu ziren 1950eko azaroaren 19an, monumentua behar bezala inauguratzeko. Horren sorrera, haatik, askoz lehenagokoa da, 1926koa, nahiz eta udalak 1938 urtera arte ez hartu bere gain monumentuaren eraikuntza bultzatzearen ardura. Zati batean herritarrek ordaindutako eskultura kokatzeko tokia hautatzeko aukera Gotzainari eman zitzaion, eta hark, eskura zituen kokaleku guztien artean, ikusgarriena aukeratu zuen: Urgull Mendiko Motako Gaztelua.



Itzela

Jesuren Bihotzari eskainitako monumentua Federico Coullaut-Valera (1912-1989) eskultore madrildarrak egin zuen, eta izugarri handia da. Oinarriaren, kaperaren eta irudiaren tamaina batuz gero, guztizko garaiera 29 metro ingurukoa da. 1,76 metrokoa du burua, eta eskuak 1,40 metrokoak ditu. Irudiaren gehieneko zabalera, berriz, lau metrotik gorakoa da. Itsasoan barrena lau milia urrunduta ere bizkarra ikusten zaiola diote...

16 Jose M^a Salaberria idazlearen irudia

Jose Diaz Bueno

Kokapena: Alderdi Ederreko lorategiak (6-C) | Data: 1973

70eko hamarkadaren hasieran Alderdi Ederreko lorategietan burutu zen beste ekimen eskultoriko bat Jose Maria Salaberria idazlearen omenezko eskultura jartzea izan zen. Zuriz margotutako zementuzko irudi txikia Jose Diaz Bueno eskultore madrildarrak egin zuen. Lan horren bidez, omenaldia eskaini nahi izan zion Donostiako Udalak jaioterriko paisaia, txoko eta ohiturei zorrotz erreparatu zion Jose Maria Salaberriari (1873-1940). Idazleak Donostiako zenbait egunkaritan hasi zuen gerora Madrilén garatuko zuen ibilbidea.



Aita Mari

Jose Maria Zubiak zeukan goitizena ez du zerikusirik inolako erlijio-jarduera rekin, itsasoratzen ziren arrantzaleek harengan jartzen zuten konfiantza osoarekin baizik.

17 Mariren omenezko monumentua

Jacinto Matheu

Kokapena: Kaia (5-B) | Data: 1901

Arrantza-portuaren erdian kokatutako horma-hobiak gordetzen duen irudiak -horren originala Jacinto Matheu kataluniarak egin zuen 1901 urtean- ez dakar gogora artista bat, ezta politikoa bat edota intelektual bat ere, arrantza xume bat baizik: 1809an Zumaian jaiotako Jose Maria Zubia Mari ausarta. Erakusketa ugaritan hartu zuen parte Mari, hari eta bera ere 1866an itsasoan hil zen arte, ekaitzak Kontxan harrapatutako ontzi txiki bateko tripulatzaileak erreskatatzeko lanetan ari zela. Badia zaintzen jarraitzen duen Mariren irudia originalaren erreplika da, jatorrizkoa denboraren joanak hondatu baitzuen.

18 Gorputz-enborra

Eduardo Chillida

Kokapena: Urgull mendia (5-A) | Data: 1963




Donostiako haur danborradaren sustatzaile bizia izandako Pedro Arana Aizpurua (1922-1961) zinegotziaren omenez egin zuen hizpide dugun gorputz-enborra Eduardo Chillidak. Eskultoreak jaioterriari oparitu zion lana, eta 1963an inauguratu zen. Eskultura, haatik, 1948ko igeltsu batean oinarrituta dago, eta Chillidak eginiko brontze bakanetakoa da. Irudiaren eskuineko izterrean antzeman daiteke eskultorearen sinadura. Txikia denez, oharkabean joan daiteke Urgull Mendia bezain eremu zabalean, baina merezi du lan horren berebiziko fintasunari erreparatzea.

19 Ignacio Zuloagaren irudia

Julio Beobide

Kokapena: Zuloaga plaza (6-A) | Data: 1938

XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako euskal margolari garrantzitsuen izan zen Ignacio Zuloaga (Eibar 1870-Madrid 1945) pintorearen irudia da nagusi haren izena daraman plazan, margolariaren lanak ikusteko aukera eskaintzen duen San Telmo museoaren aurrean. Margolariaren adiskide izandako Julio Beobide (1891-1969) eskultore zumaiaarrak egin zuen irudia 1938an, bere karreraren hastapenetan zela, bi urte lehenagokoa baitzuen soilik aurreneko bakarkako erakusketa.



Auzokideak

Hogei urteko tartea zuten Zuloagak eta Beobidek behin baino gehiagotan egin zuten lan elkarrekin, eta egun museo bilakatutako tailerrak ere bata bestearen ondoan jarri zituzten, Zumaiaiko Santiagoko hondartzatik hurbil dagoen eremu ederrean.

20 Beste aldean

Eduardo Chillida Belzunce

Kokapena: Zuloaga plaza (6-A) | Data: 2004

Zuloaga Plazara ematen duten Abuztuak 31 kaleko etxebizitzaren eraikinarean berrikuntzak izan duen prozesu luzeak bere fatxadaren bederatzi metroko luzera duen mural bertikal bat ezartzeko aukera eman du. Kolore grisak eta gorriak dituzten terrakotazko pieza taldeak barrualde bat eta Kontxako badia ikus daitekeen leiho bat errepresentatzen du. Eduardo Chillida Belzunce bere sortzailearen hitzetan, "etxebizitza hauetako biztanleek, Aquariumeraino zulo bat egingo balitz edukiko zuten bista izango litzake". Egia da "Beste Aldean" dagoena erakusten duela.



Terrakota

Murala osatzen duten terrakotazko 61 plakek arte prozesu zorrotz baten bitartez sortuak izan ziren. Ramon Ruiz Cabestany eskultoreak materiala oratu ondoren, Chillida Belzunce pieza bakoitza margotu eta ondoren eskultore nafarraren tailerrean, laban sartzen zen. Beroak kolorean sortzen zituen aldaketak zirela eta, askotan ukituak eman edota berriz egin behar izan ziren.

21 Estela

Agustin Ibarrola

Kokapena: Portua (5-B) | Data: 1988

Pitzadura ia zirkularrak, urdinez margotutako begi bat izango balitz bezala, porlanezko bloke laukizuzena apurtzen du. Agustin Ibarrolak egindako monolitoa ezaguna egiten zaio bidaiariari. 1988. urtean Eusko Jaurlaritzak 12 obra eskatu zizkion Bizkaia eta Gipuzkoako portuak apaintzeko. Donostiako kaiko monolitoa da Kantabriar itsasoa begizatzen duten hamabi "begietako" bat.



22 Pietatea

Jorge Oteiza y José Ramón Anda

Kokapena: San Bizente eliza (6-B) | Data: 1999



Protesta

Oteizak sortutako Pietateak nekez hartuko du etsipenez semearen heriotza. Oteizaren Pietatea protesta egiten duen eta oinazea aldarrikatzen duen ama erdibitua da. «Zein amak ez zukeen beste horrenbeste egingo!», esan zuen Oteizak 1999an, eskulturaren inaugurazio ekitaldian.



Erabat makaltzen hasia zen Jorge Oteiza 1999an, orduantxe zaharberritutako San Bizente elizako aurrealdean bere Pietatea jarri zenean. Donostiako eliza ederrenetarikoa den honetan paratutako lana izan zen, hain zuzen, hiriak izan zuen Oteizaren aurreneko lana. Nahiz eta sasoi betean ez egon, artistak berak hautatu zuen kokalekua -fatxada nagusian, baina San Bizente kalera ematen duen alboko atearen gainean- eta, purua eskuan hartuta, berak zuzendu zuen jartzea, ohikoa zuen kementa lagun. Metro eta erdi eskaseko garaiera duen eskultura egiteko, Oteizak 1953 eta 1969 urteen artean Arantzazuko Santuegiko frisorako eginko 27 zirriborroetako bat erabili zen eredu gisara. Oteizaren adiskide zen Jose Ramon Anda eskultorea arduratu zen artistaren hasierako maketa aluminiora eramateaz, betiere Orioko sortzaile handia lagun zuela.

23 Sarriegiren omenez

Nino Barriuso

Kokapena: Sarriegi Plaza (6-B) | Data: 1894

Norbaitek Donostiaren soinu-bandaren sortzailea dela esateko eskubiderik badu, Egiako Etxeberri baserrian 1838. urtean jaio eta 1913. urtean hil zen Raimundo Sarriegi musikaria da hori, hark sortutako musika entzuten baita Donostiako festa herrikoia guztietan, horien buruan, noski, San Sebastian martxa eta danborrada osatzen duten gainerako piezak daudela. Bere auzoko jaien animatzaile nekaezina, ogibidez dendaria eta bokazioz musikari zen Sarriegi, eta donostiar gehientsuenek eza gutzen dituzten hamar pieza konposatu zituen. Hil ostean -adiskide botikaria agurtzera sartu, eta botikan bertan hil zen Sarriegi- jaso zuen aurreneko omenaldia hurrengo urteko Danborrada bertan behera uztea izan zen. Ondoren, hiriak irudi bat eta plaza bat eskaini zizkion. Irudia Jose Lopetegik egin zuen, eta harena da, halaber, Sarriegik bere plazan hainbat urtez lagun izan zuen danbor-jolea. Zementuzkoak ziren eskultura biak, eta ez zeuden egungo multzoa dagoen tokian, plazaren beste muturrean baizik. Multzo berria Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateko irakasle ere baden Nino Barriuso eskultoreari agindu zioten plaza zaharberritu zenean. 2002 urteko San Sebastian egunean jarri ziren brontzezko eskultura berriak tamaina naturalekoak dira, aurrekoak baino handiagoak -danbor-jolea, konparazio batera, bi metrokoa da- eta tamaina horrekin aurreko multzoak ez zuen izaera monumentalak ematen dio egungoari.



Antza

Nolakoa zen Sarriegi? Haren ondorengoek gordetzen zuten argazki bakarren arabera, ez zuen aurreko eskulturak irudikatzen zuen gizonaren antzik, hark, argazkikoak ez bezala, ile kizkurra eta begi irtenak baitzituen. Sarriegiren antz handiagoa omen du egungo irudiak...



24 Jose Maria Usandizagaren irudia

Josep Llimona

Kokapena: Gipuzkoa plaza (6-B)

Data: 1916

Gipuzkoa Plazako osagarri erromantikoenetakoa Jose Maria Usandizaga (1887-1915) musikari donostiarrari eskainitako monumentua da. Oso gaztean hasitako artista izan zen eta, hil ere gazte hil zen arren, heriotza goiztiarrik ez zion obra ahaztezinak sortzea eragotzi, hala nola Mendi Mendiyan opera edota Las Golondrinas zartzuela. Musikari hil eta urtebetera, hiriak ez zuen ahaleginik aurreztu musikaria omentzeko orduan, eta haren omenezko eskultura ordurako izen handikoa zen Josep Llimona (1864-1934) eskultore modernista katalan ospetsuari agindu zion.



Kontzertua

Donostiako Orfeoak eskaintako kontzertu bati esker lortu zen eskultura ordaintzeko dirua. Udalak ere egin zion ekarpena omenaldiari, eskulturaren garraioa ordaindiz.

25 Foru Jauregiko fatxadako irudiak



Marcial Aguirre

Kokapena: Gipuzkoa plaza (6-C)
Data: 1885

Gipuzkoa Plaza -hortxe dago alegia Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza den Jauregia- XIX. mendearen amaieran hiriari handitzeko bidea eman zion lehen zabalguneko zati nagusietako bat da. Plaza nagusiak gogora dakartzan plaza arkupedun honetan, kutsu klasikoa duen jauregia nabarmentzen da. Goikoa arkitektoak egina, 1885 urtean inauguratu zen. Eraikinaren aurrealde nagusian, lehen solairuan, bost gipuzkoar ospetsuren irudiak txertatzen dira, Marcial Aguirre eskultore bergararrak eginak. Goiko aldean, Gipuzkoako armari handiak osatzen du multzoa.

Gipuzkoar ospetsuak

Irudiek historiako bost gipuzkoar unibertsalenak gogoratzen dituzte. XVI. mendean, Juan Sebastian Elkano getariarrak lehen itzulia eman zion lurrari. Mende hartan bertan, Migel de Legazpi Zumarragako semeak Espainiako erregearen esku jarri zituen Filipinak, eta Manila fundatu zuen. 1508an Ordizian jaiotako Andres Urdaneta, berriaz, soldadu izan zen fraide izan aurretik, eta itsasorako zuen trebezia izan zuen lagun Filipinak ebanjelizatzeo. Guardamarina bezala hasi eta Armadako Jeneral izatera heldu zen Blas Lezo itsasgizon pasaiatarra XVII. mendeko militar ospetsuenetakoa izan zen, Antonio Okendo donostiarra bezala. Biek ere garaipen handiak eman zizkieten Espainiako Errege Itsaso-armadari.



26 Aita Donostiaren irudia

José María de Vera

Kokapena: Argentinaren Errepublikaren pasealekua (7-B) | **Data:** 1974

Argentinaren Errepublikaren Pasealekuko lora-tegi-gune batean, Maria Kristina hoteletik gertu eta Urumea ibaira begira, 80eko hamarkadan jarritako Jose Maria de Veraren brontze txiki batek Jose Gonzalo Zulaika kaputxinoa (1886-1956) dakar gogora. Ordenaren usadioei jarraiki, Jose Antonio Donostiakoa bilakatu zen 1908an, kongregaziora bildu zenean; Aita Donostia, alegia. Lekarotzen irakasle zela hasi zen musika egiten, eta 1918tik hil zenera arte ez zion utzi eliza-kantuak, mezak, euskal dantzak, pianorako obrak eta beste sortzeari.

Aita Donostia


XX. mendeko euskal musikari handien artean dagoen Aita Donostiak, obra izugarri zabala sortzeaz gain, musikologo eta ikerlari ere bazenez Euskal Herri osoa korritu zuen euskal musika-ondare aberatsa berreskuratu nahirik.

27 Pio Barojaren irudia

Victorio Macho

Kokapena: Okendo plaza (6-B)
Data: 1972

Nor Baroja bera baino egokiago obra hau deskribatzeko? Hitz hauek esan zituen, hain zuzen, 1935 urtean bere irudia inauguratu zuenean: «Nire oroitzapena ezabatu eta gero, irudi honek bere tokian jarraitzen badu, pozik egoteko nahikoa izango nuke etorkizunean estatua ikusten dutenek jakingo balute egia ezagutarazteko grinak bultzatzen zuela hori egiteko modeloa izan zen gizona, hipokrisia eta gezurra gorrotatzen zituela eta, bere garaian kontrakoa esan bazuten ere, bere herria bihotz-bihotzez maitatzen zuen euskalduna izan zelax.



Mendeurrena

Pio Barojaren (Donostia, 1872-Madril, 1956) brontzezko irudia, 1972an idazlearen mendeurrenaren kariaz Victorio Machok egin, San Telmo museoko fondoen artean dagoen originalaren kopia da.

28 Antonio Okendo

Marcial Aguirre

Kokapena: Okendo plaza (7-B) | Data: 1894

1878 urtean, Foru Jauregiko fatxada apaintzen duen frisoko gipuzkoar ospetsuen irudiak egin zituen Marcial Aguirre eskultore bergararrari agindu zion Donostiako Udalak Antonio Okendoren (Donostia, 1575- A Coruña, 1640) omenez eraikitako eskultura, haren izena daraman plazan kokatua. Hiru urtez, borrokan aritu zen egile San Fernandoko Arte Ederren Errege-akademia-rekin, mila xehetasun tarteko Akademiak ez baitzion oniritzia ematen Agirreren lanari: Okendo gazteegia iruditzen zitzaie, zuzentasun historikorik ez zuela soinean zeraman korazak... Zailtasun horiei aurrekontuarekin zerikusia zutenak ere gehitu zitzaizkien baina, azkenean, 1894ko irailearen 12an inauguratu ahal izan zen monumentua, Okendok holandarraren aurkako itsas gudu garrantzitsu batean lortutako garai-penaren urteurrenean.



Pertsonaia

Itsas Armada Garaiezinaren rol garrantzitsua izan zuen Migel Okendo itsasgizon ospetsuaren semea izanik, Antonio Okendo 17 urte zituela sartu zen Espainiako Gerra Itsas Armadan, eta berehala utzi zuen agerian ofizial bikaina zela. Felipe III.aren eta haren ondorengo Felipe IV.aren zerbitzuan egon zen, eta zati handi batean Mundu Berrian garatu zuen karreran sekulako garaipenak lortu zituen, baina pasarte ilunak ere izan zituen, bere karguak kendu zizkieten eta kartzelaratua ere izan zen. Hala eta guztiz ere, ohore guztiekin eta edozein susmotatik libre erretiratu zen.

29 Tomas Garbizu konpositorearen irudia

Iñigo Echeberria

Kokapena: Okendo plaza (7-B) | Data: 1992

Gipuzkoako Foru Aldundiak eskatuta, 1992an egin zuen Iñigo Etxeberriak Tomas Garbizu (Lezo, 1901-1989) musikariaren brontzeko irudia, horrela omendu baitzuen Aldundiak XX. mendeko euskal musikari ospetsuenetako bat. Garbizuren bizitza profesionala organoari lotuta egon bazen ere -zenbait urtez Frantziak Madrilen zuen enbaxadako organista izan zen eta, 1954 urteaz geroztik, organo katedraduna Donostiako Kontserbatorioan-, prestakuntza sendoa zuen musikariak kontzertu ahaztezinak eman zituen bere karreraren zehar, baita sari garrantzitsuak lortu ere. Horrez gain, genero asko ukitu zituen konpositore emankorra izan zen. Argitaratzeko dago bere obraren zati bat.



Eta zinema...

Baliteke Tomas Garbizuren komposizio ezagunenak eliz musikari lotuak izatea, baina ez zion inondik ere muzin egin musika herrikoiari, eta 40-50.eko hamarkadetako zinemarako musika ere konposatu zuen.



30 Secundino Esnaolaren irudia

Julio Beobide

Kokapena: Erregina Erregentearen kalea (6-B)
Data: 1954

Iraultzailea

Gizaki zein artista bezala izan zuen merituz gain, 1908an abesbatza misto bat sortzeko 'ausardia' izan zuen Secundino Esnaolak. Abesbatza hura gertakizun iraultzaile baten atariko izan zen, emakumeei Donostiako Orfeoiko ateak ireki baitzizkien.

Erregina Erregentearen kalearen erdialdean dagoen lorategian bilatu behar da, Julio Beobidek egin eta hiriri oparitu zion irudia aurkitu ahal izateko... Lan horren bidez, horrelako lanetan erdietsi zuen maisutasuna utzi zuen agerian Beobidek. Uharte itxurako lorategi txikian, omen egiten dio Gipuzkoak euskal kantutegi herrikoira bildu diren abesti ugari konposatu zituen Secundino Esnaolari (Zumarraga, 1878-Donostia, 1920). Donostiak 1902tik hil arte Donostiako Orfeoia zuzendu zuelako ere badu gogoan Secundino Esnaola.



32 Iztuetari Kantua

Nestor Basterretxea

Kokapena: Euskadi plaza (7-B)

Data: 1971

Iztueta

Euskal dantza herrikoia berreskuratu eta horien balioa nabarmenarazteko orduan izan zuen garrantzia gain, Jose Ignazio Iztueta (1767-1845) koreografoak Gipuzkoaren historia zabala idatzi zuen.

Badirudi Nestor Basterretxeak Jose Ignazio Iztuetari eskainitako eskultura dantzaririk ausartenak eginiko jauziaren arrastoa airean gauzatzeko gai dela. Xaflaz eginiko lanaren ezaugarri nagusia aldi berean arintasun eta mugimendu sentazioa ematen da. Gura zuen emaitza lortu arte, behin eta berriro behartu eta tolestu zuen eskultoreak erabilitako material delikatuak. Itxuraz hauskorra bada ere, krema kolorez margotutako burdinazko xaflak sendotasun handia erakutsi du, hiru hamarkadaz goiti baitaramatza irudizko dantzariari airean eusten. Iztuetak berak irudikatutako dantzariari, agian...



31 Herri Txistu Otza

Remigio Mendiburu

Kokapena: Askatasunaren hiribidea, 1 (7-C)

Data: 1975

Kasurik gehienetan, erakundeen eskutik irten ohi da eskultura kalera, baina kasu honetan hiriko kale nagusietako baten hasieran kokatutako eraikinaren sustatzaileak agindu zion Remigio Mendiburu (1931-1990) eraikinaren fatxadan gora egiten duen lana. Ingurune batik bat klasikoan kokatutako eraikinaren izaera berritzailea azpimarratzen zuen eskulturak, eta biziki harritu zituen garai hartako donostiarrak. Hamabi-hamabost metroko altzairu herdoilgaitzezko dozena bat tutu huts, sopletez landuak, enbor bihurrituak edo sustrai erraldoiak izango balira bezala lotzen zaizkio elkarri. Mendibururen eskuetan, alegia, gutxitan bezala hurbildu zitzaizen altzairua naturari eta zuraren esentziari, azken hori izan baitzen Mendiburuk gehien erabili zuen materiala.

Esate baterako...

Arestian aipatutako tokitik ez oso urrun, Kutzaren egoitza nagusiko (Garibai kalea) sarreran, Mendiburuk zura erabilia egin zuen lanaren adibide bikaina ikus daiteke, 1976tik 1977ra bitartean, erakundeak eskatuta, bi pieza mural eta izaera organiko nabarmena duen kasetoidura ederra egin baitzuten.



33 Bakearen Gurutzea

Eduardo Chillida

Kokapena: Artzain Onaren Katedrala (6-D) | **Data:** 1997

1977 urtean, ehun bete zituen Artzain Onaren katedralak, eta Eduardo Chillidak sekulako opari egin zion: gurutze bat atera zuen -Bakearen Gurutzea, alegia- 800 kiloko alabastro zati batetik. Gurutzea artistak harriaren jatorrizko egitura gorde zuelako nabarmendu behar da, besteak beste. Orduz geroztik, eta XIX. mendearen amaierako Donostiak oso gogoko zuen berregite neogotikoarekin kontraste bizia eginez, funtsezkoa denaren indarra darion gurutzea da katedralako erdiko atariko tinpanoko osagai nagusia. Chillidaren beste bi gurutze ere ikus daitezke katedralan. Arantzazuko Basilikan ere badago, pontearen ondoan, Chillidaren gurutze bat.



34 Maria Kristina erreginaren omenezko monumentua

Jose Luis Diaz Bueno | Leon Barrenechea

Kokapena: Amarako Parkea (7-E) | **Data:** 1919

Jose Luis Diaz Bueno madrildarrak sortua, Leon Barrenechea irundarrak egin eta herri-harpidetzaz ordaindua, Donostiak Maria Kristina erreginari eskaini zion estreina-ko omenaldia 1919an inauguratu zen. Karitatea eta bertutea ditu alboetan erreginak, eta frisoan herri xehea eta intelektualak daude irudikatuta. Maiz zaharberritu behar izan dute estatua.



35 Estela

Ricardo Ugarte

Kokapena: Ehungarren urteurrenaren plaza (7-E)
Data: 1970

Donostiako kaleetan ikus daitezkeen beste eskultura batzuk bezala -Jose Ramon Andaren Zeharki eta Nestor Basterretxearen Pio Barojaren omenez, esaterako- Ricardo Barojaren (Pasaia, 1942) Estela hau ere Donostiako Udalak, eskultura sustatzeko eta hiriri ondare eskultorikoa emateko asmoz, hiru urtez (1969tik 1971era) antolatu zuen Nazioarteko Eskultura Bienalaren emaitza izan zen. 1970 urteko San Sebastian egunean (urtarrilaren 20an) inauguratu zen eskultura. Zinkez metalizatutako burdinaz eginko 10 metroko eskulturaren bidez, tamaina desberdinetako kubo hutsen arteko orekakoa sortu zuen egileak. Eskultura aspaldi bilakatu zen hiriko gune horren bereizgarri.

Aitzindaria

Irudi elikatuak eta estatua erromantikoak gogoko zituzten donostiar askorentzat, Estela izan zen eskulturaren abangoardiarekin izan zuten aurreneko harremana. Jarri zutenean, polemika biziak eta ikamika dibertigarriak piztu zituen.

36 Trikitilariak

Tomas Hernandez Mendizabal

Kokapena: Etxeberrri plaza (7-G)
Data: 1991

Amara Berrin dagoen Etxeberri plazak kolore eta musika astinaldia jasotzen du "Trikitilariak" esker. Bi giza irudi luzexkak, panderoarekin bata eta trikitixarekin edo akordeoi diatonikoarekin bestea, euskal folklorea gogoratzen dute. Tomas Hernandez Mendizabalek Donostiako Udalak eskatuta burutu zuen lan hau. Kolore biziz margotutako metalak erabili zituen hau egiteko.

Kartelgilea

Tomas Hernandez Mendizabal margolaria eta eskultorea ere baden arren, ezagunagoa da diseinatzaile grafikoa delako. Donostiako Jazzaldia, Tolosako Inauteriak eta Gipuzkoako beste zenbait festa, artistaren izaera bereizgarriaren kartelarekin iragarri dira 1965. urte-
tik aurrera.



37 Merkatariak

Manuel Santo Domingo

Kokapena: Merkatarien plaza (7-G)
Data: 1989



Amara Berrin dagoen Merkatarien plazak, hiriaren garapenerako oinarritzkoa den merkataritza sektorea omentzen du. Merkatarien plazan, eskultura arin bat dago, burdinazko karratutxoekin mugatuta dauden prisma hutsez egindako egitura da. Honek merkatarien irudiak gogoratzen ditu. Manuel Santo Domingok, urteetan Donostiako Udaleko arkitektoa izandakoaren, hiriari oparitu zion lana da.

38 Izenbururik gabeko frizoa

Remigio Mendiburu

Kokapena: Karlos I. hiribidea (7-G)
Data: 1973




Zer da?

Remigio Mendiburuk ez zien izenik jarri hormari horizontalki itsatsitako irudi abstraktuei. Hori dela eta, pasabidea maiz erabiltzen dutenek euren teoria partikularrak asmatu dituzte...

Segur aski, Karlos I. hiribideko zenbaki bikoi-ti eta bakoitiak lotzen dituen lurpeko pasabidea egunero zeharkatzen duten ehunka lagun-en artean gutxi batzuk dakite soilik zenbaki bikoitietara hurbiltzerakoan ikusten duten irudia euskal eskultore handienetako baten lana dela: Remigio Mendibururena. Lau metro luze eta bi metro garai den burdinazko obra 1973an jarri erazi zuen egungo kokalekuan Gipuzkoako Foru Aldundiak, auzoa garatzen ari zen unean.

39 Mandasko Dukearen irudia

Jose Joaquin Barriola



Kokapena: Kristina-Enea parkea (8-E) | Data: 1926

Legatua

Baldintza zorrotzak ditu Mandasko Dukeak hiriari egin zion legatuak. Besteak beste, parkearen erabilera publikoa ezarri zuen, horren eraldaketa debekatu zuen eta izena aldatzea ere galarazi zuen, Dukesaren omenez jarria baita jatorrizkoa.

Kristina-Enea parkea hiriaren erdian kokatuta dagoen oasi berdea da. 100.000 metro karratuko lursaila Fermin Lasala y Colladok (1832-1917) erosi zuen, eta arreta handiz egokitu zuen bere bizitokia izan zedin. Karrera luzea izan zuen diplomatiko eta politikari liberal donostiarra -diputatu, senatari eta Sustapen ministro izan zen, baita Espainiako enbaxadore ere Londresen eta Parisen- herri-lanen alorrean eginiko lanagatik nabarmendu zen, Cristina Brunetti Mandasko eta Villanuevako dukesa eta Belalcazarko kondesarekin ezkondu zenean egin zuen bere Mandasko duke titulua, eta, hil zenean, Donostiaren esku utzi zuen finka, horren barruan zegoen guztia barne. Eta hiriak parkean bertan ikusi daitekeen irudiaren bitartez eskertu zion oparia. Eskultura Jose Joaquin Barriolarena (1895-1984) da.



40 Bakearen Usoa

Nestor Basterretxea

Kokapena: Aita Donostia plaza (8-H) | Data: 1988

80ko hamarkadaren amaieran agindu zion Donostiako Udalak Nestor Basterretxeari lan monumental hau, hiriak bakearekin, askatasunarekin eta bizikidetzarekin duen konpromisoaren ikur izan zedin. Hain zuzen ere, bakearen sinbolo unibertsala erabilita gauzatu zuen ideia eskultore bizkaitarrak, eta profil irmoko uso erraldoi bat sortu zuen -zazpi metro garai da, eta bederatzi metrotako hego luzera du-, poliester zuriz estalitako burdina erabilita. 1993az geroztik, Anoetako estadio

pareko Aita Donostia plazan dago auzer aurre begiratuazatekosortuzen eskultura.



Itsasertzean

1988 urtean estreinakoz Donostian pausatu zenean, Basterretxearen Bakearen usoak oso bestelako kokalekua izan zuen, itsasertzean jarri baitzuten, Zurriola Pasealekuan, eta hantxe inauguratu bakearen aldeko festa handi batekin. Kur-saal jauregia -Moneoren kubo famatuak- ametsetan ere ez ziren existitzen, eta hainbat urtez bakar-bakarr-rik egin zion aurre itsas-ari usoak, harik eta Zurriola pasealekuko urbanizazio lanek hegazti migra-tzaile bilakatzera behartu zuten arte.

41 Alberto Ormaetxea

Debako Tailerra

Kokapena: Anoetako estadio aurrean dagoen zelaigunea (8-H) | **Data:** 2006

2005eko Urrian Donostian asko maite zuten gizon xumea hil zen. Alberto Ormaetxea, Realeko entrenatzaile, futbol taldearen denbora onenetan, izandako gizona. Realak berak, Debako Tailerrari brontzeko busto bat egitea eskatu zion bere omenez. Lana Marino Plazak egin zuen Markinako marmol beltzean txertatuta.

Txapelkunak

Alberto Ormaetxea eibartarra Errealaren historian ezinbesteko pertsonaia izan da. 60. hamarkadan, jokalaria txuri-urdina izan zen Gorriti eta Martinezekin hirukote paregabea osatuz. 80. hamarkadan entrenatzaile bezala, taldearen garai onenak bizi izan zituen, Liga txapelketa bi urte jarraian irabaziz. Bere omenez egindako eskultura 1981. urteko txapelketaren 25. urteurrenean inauguratu zen.



42 Atano III

Xebas Larrañaga

Kokapena: Anoeta, Atano III. frontoi parean (8-H) | **Data:** 2005



Mariano Juaristi Mendizabal azkoitiarra, Atano III. bezala ezagutzen dena, betiko pilota jokalaria onena dela esan ohi da. Bere jaiotzaren 100. urteurrena ospatzeko Pilotaren Batzarrak pilotariaren herriko pertsona bati busto hau oparitu zion. Bustoak bi punturen artean kirolariaren tentsioa eta arreta irudikatu nahi ditu.



43 Ateak

Aitor Mendizabal



Kokapena: Irún plaza (8-G) | **Data:** 1996

Merkatalgune baten eraikuntzak eta hirigune berri baten sorrerak eman zuten, 90eko hamarkadaren erdialdean, Amarako mutur batean ordura arte batere zaindu gabe zegoen plaza birgaitzeko bidea. Aldaketa-une hartan, Udalak Aitor Mendizabal (Venezuela, 1949) eskultorearen proposamena aintzat hartu eta, etorkizuna gogoan, iraganaren omenezko monumentu bat jartzea erabaki zuen. Xede horrekin, marmolez, kobrez eta brontzez eginko bi «ate» handitan integratu zituen 1913an, mende bat lehenago suntsitu berria zen hiria berritzeko bultzatu zuten donostiarren omenez, eraikitako monumentu baten hondarrak. Iturri zibernetiko baten osagai nagusia da eskultura.

Ospetsuak

1913an ospe handiz paratu zen Alderdi Ederren Zubietan bildu eta hiria berreraikitzea erabaki zuten donostiarren omenezko Mendeurrenaren Monumentua. Monumentu hark, ordea, bizitza laburra izan zuen, eta zenbait hamarkadaz gora eta behera ibili ziren hirian barrean Zubietako Ospetsuaren irudiak, behin betiko kokalekua Amaran aurkitu arte.

44 Manolo Choperari Omenaldia

Faustino Aizkorbe

Kokapena: Illumbe zezen plaza ondoko errotonda (8-H)
Data: 2004

Manuel Martínez Flamarique, Manolo Chopera bezala ezagutzen dena, zezen munduko enpresari saga baten ordezkaria zen. 2002. urtean, hil zenean, Donostiako Illumbe zezen plazak, zezen tradizioa berreskuratzen lagundu duenak, Choperari omenaldi bat eskaintzeko eskaera ugari jaso zituen. Horrela, Faustino Aizkorbe eskultore nafarrak altzairuan egindako zezen baten irudia egitea eskatu zioten.



Memoriala

Bere hiru metroko altueratik Illumbe plazara begira egoteaz gain, Manolo Choperaren omenez egindako eskulturak beste bertsio batzuk dauzka formatu txikiagoetan. Artelanaren errepliketako bat, "Manolo Chopera Memoriala" Munduko Zekorzain Topaketan ematen den trofeoan aurkitzen da.

46 Albert Einstein

Javier San Miguel

Kokapena: Zientziaren Kutxaespazioko sarreran (5-H)
Data: 2005

Zientziaren Kutxaespazioa bezalako leku batek eskatzen duen bisita aktiboaren ondoren eta bertan dauden esperimenduak probatu ondoren, eskertzekoa da aulki batetan deskantsatzeko aukera edukitzea, batez ere zure ondoan eserita dagoena garai guztietako zientzialari ospetsuenetako bat denean: Albert Einstein. Bere heriotzaren 50. urteurrena dela eta bere Erlatibotasunaren Teoria ospetsuaren 100. urteurrenarekin bat, museoak Javier San Migueli, Einstein handiaren ondoan esertzea uzten digun brontzeko lan hau eskatu zion.



Liliputen

Seguruenik Einstein bera, eroso sentituko litzake Zientziaren Kutxaespazioko sarreran. Lorategietan fisikaren printzipioak erakusten dituzten instalazio desberdinak eta "Gipuzkoa miniaturan" deituriko, lurraldeko eraikuntza nagusiak eskala txikian erreproduzitzen dituen maketa sorta daude erakusgai.

45 Juan Miguel Orkolagaren omenezko eskultura

Miguel Fermin-Oa

Kokapena: Igeldo auzoa (1-C)
Data: 1916

XX. mendearen hasieran, donostiarrek -itsasgizonek, batik bat- Juan Miguel Orkolaga Igeldoko eguraldi-igarlearen «parteak» irakurriz hasten zuten eguna, haren oharrek ospe handia baitzuten. Aurretik Zarautzeko bikario izandako aita Orkolagak 1914an sortu zuen Igeldoko Meteorologia Behatokia. Orduz geroztik etenik gabe egon da jardunean, eta Kantauriko garrantzitsuenetakoen artean jarraitzen du. Auzoko pilotalekutik hurbil dago egun irudia.



47 Gaztelu

Ricardo Ugarte

Kokapena: Miramon, Kutxako Prestakuntza zentroaren sarreraren ondoan (5-H)
Data: 1994

Herri baten memoria biltzen duen gazteluaren ideia asko ikusten da Ricardo Ugarte paisaitarraren obran. Berak egindako "Gaztelu" saila denboran eta espazioan luzatu da. Miramonen aurki dezakegu burdinazko gaztelu luzexka hauetako bat. Ugarte ziur dago "eskulturaren leku naturala kalea dela, guztiek ikus dezaketenen espazioak, kaleak, plazak, lorategiak...herriarekin kontaktuan egon behar direla"



48 Moby Dyck

Adolfo Schlosser

Kokapena: Jose Maria Sert plaza (1-F)
Data: 1990

Zenbait urtez, Herman Melvilleren irudi-
menetik sortutako bale zurian inspira-
tutako eskultura, 1990 urtean sortua,
Ehun-urteren Plazako lorategietan
egon zen, lehorrean. Donostiako Udalak
Madrilgo galeria bat erositako Schlosse-
rren lana 1992an kendu zuten ohiko
tokitik, inguru hartan hasi ziren birmol-
daketa lanen ondorioz. 2003 urtean
agertu zen berriro ere balea, haren iza-
erari hobeto egokitzen zitzaion tokian
agertu ere: Benta Berri auzoko Jose
Mari Sert Plazako urmael batean. Grani-
toz eta altzairuz eginiko itsas handia
uretatik irteten da egun, soropiletik irten
beharrean, eta kokaleku berriari esker
hobeto ikusten da eskultura.



Austriatik


Leiersdorfen (Austria) 1939an
jaioa, Schlosser Espainian bizi
da 1967az geroztik. Haren
lanaren ardatz nagusia natu-
rari buruzko gogoeta da. 1991
urtean Arteen Sari Nazionala
lortu zuen.

49 Iturria

Francisco López Hernández

Kokapena: Zubimusu Parkea (1-E)
Data: 1992

Zubimusu parkean jolasean ibiltzen diren
umeek hutsik uzten dute ilunabarrean
zenbait txoko harrigarri ere badituen
parke hau, Miramoneko Zientziaren
Museoa bezain enblematikoak diren
proiektuen sortzaile izateaz gain, Chillida-
Lekuren egokitzapenean Eduardo
Chillidaren hurbileko lankide izan zen
Joaquin Montero arkitekto donostiarrak
diseinatu. Ez da hori, ordea, Francisco
Lopezek sortutako bi umeen kasua.
Hormigoizko horma baten gainean
eserita, bi ume horiek gau eta egun
erreparatzen diote Parkeko urmaela
hornitzen duen uraren etengabeko
joanari. Urmael horretan beste eskultura
bat ere badago: teoriar orduro aureskua
dantzatu beharko zukeen dantzaria, nahiz
eta azken urteetan brontzezko ume
lasaiak bezain geldirik egon.



Errealistak

Francisco Lopez Hernandez,
bera bezala eskultorea den
Julio anaiarekin eta Antonio
Lopez margolariarekin bate-
ra (deitura berekoak izan
arren ez dute familia-harre-
manik, baina adiskide eta lan-
kide izan dira zenbait hamar-
kadaz), Espainiako eskola
errealista garaikideko kide
ezagunenetakoa da.

50 Izenbururik gabea

Andres Nagel

Kokapena: Europa plaza - Ibaeta (1-F) | **Data:** 1996

Beste hainbat obrak bezala, gainean orekari
bat daraman hiru hankako zaldi honek urteak
eman zituen behin betiko kokalekuaren zain,
harik eta, 1996an, Tolosa hiribideko erroton-
da batean jarri zuten arte. Bere garaian Donos-
tiako handiko brontzea da, eta hirirako sarbi-
de nagusietako batean dago kokatuta, Euskal
Herriko Unibertsitatearen Donostiako campu-
saren parean. Berariazko basoan bizi da kutsu
mitologikoa ere baduen zaldia ingurua azke-
nekoz birmoldatu zenez geroztik.



Mugarik gabe

1947an Donostian jaioa,
azken urteetan nazioartean
itzal handienetakoa duten
artista plastiko espainiarren
artean dago Andres Nagel.
Karrera luzean zehar, behin
eta berriro gurutzatu ditu,
horiek ezabatzeraz heldu arte,
genero artistikoen arteko
mugak, diziplinak, teknikak
eta materialak, eta eskultura-
rako, pinturarako, ilustrazio-
rako zein grabaturako erabili
ditu, besteak beste, sormen-
gaitasuna eta menderatzen
dituen teknika ugariak.



51 Haur-jolasa

Agustin Ibarrola



Kokapena: Intxaurrondo, Bernart Etxepare plaza
Data: 1991

Agustin Ibarrola (Basauri, 1930) eskultoreak azken hamarkadetan artegintza berri duen mugimendu gehientsuenetan utzi du azterna.



Maiz baliatu izan dituen trenbide-trabesak erabili zituen Intxaurrondon ikus daitekeen tunel kiribil luzea egiteko. Eusko Jaurlaritzako Hirigintza Sailak eskatuta, 90eko hamarkadaren hasieran paratu ziren Intxaurrondon Haur-jolasa eskultura eta Siluetak izeneko multzoa, baina hizpide dugun lana lehenagokoa da.

Intxaurrondo

Donostiako hiri-garapen berrienetakoa da Intxaurrondo, plaza eta errotonda zabalak dituen auzo gaztea. Hiri-gune berri horien urbanizazioak zenbait eskultura interesgarri ere hartu zituen aintzat.

52 Formak hazkunderan

Koldobika Jauregi

Kokapena: Hego Intxaurrondo. Sagastieder plaza
Data: 1994

Bolada batez, zaldia izan zen Koldobika Jauregi (Alkiza, 1959) eskultorearen lanaren ardatz nagusietarikoa. Bera da, hain zuzen, zura ondoen lantzen duen euskal eskultoretako bat, baita egun nazioartean sona handiena duenetako bat ere. Kutsu totemikoa duen eskultura zortzi metro garai da, 120 tonatik gorako pisua da, eta zaldi buruak gainjartzean oinarritzen da. Lan honetan, dena den, artistak ez zuen agerian utzi zuraren bihotza, Lasturko haranetik ekarritako marmol grisa erabilia egina baita eskultura.



54 Siluetak

Agustin Ibarrola

Kokapena: Intxaurrondo. Gabriel Celaya plaza
Data: 1984



53 Monolitoa

Equipo 57

Kokapena: Intxaurrondo. Pablo Sorozabal plaza
Data: 1990



Taldea

Juan Cuenca, Juan Duarte eta Juna Serrano kordobatarrek, Cacereseke Angel Duarte eta Agustin Ibarrola bizkaitarrak osatu zuten Equipo 57 taldea, 1957tik 1962ra, sekulako ekarpena egin zion Espainiako abangoardiaren berreskuratzeari.

Eskulturaz gain pintura, diseinua edota zinema ere landu zituen Equipo 57 taldeak aspaldi eginiko maketa batean oinarrituta dago hizpide dugun eskultura, korten altzairuzko txapa erabilia eginiko monolitoa. Zortzi metroko garaiera du, eta behealdetik angelu zuzenean elkartutako bi xaflek osatzen dute, erdialdetik aurrera gurutzatzen direnak. Eskultura egiteko erabili zen eredua Agustin Ibarrolak jarri zuen eremu horren urbanizazioaren ardura zuen Eusko Jaurlaritzaren esku. Eskultura Mons eta Zarategi pasealekuan arteko biribilgunean kokatu zuten.



Trantsizioaren aurreko urteetan Alderdi Komunistako kide izan ziren Celaya eta Ibarrola elkarrekin daude berriro Intxaurrondon. Celayaren izena daraman plazarako sortu zuen propio Ibarrolak korten altzairuzko txapaz eginiko eskultura hau. Sei xaflek osatzen dute eskultura, eta silueta ugari daude xafla horietan zulatuta. Ibarrolak plaza diseinatu zuen arkitektoarekin batera prestatu zuen lanaren proiektua.

55

Zergatik

Jose Antonio Diaz de Quevedo

Kokapena: Añorga Txiki (1-H) | Data: 1979



Añorgako auzoaren zelaian erortzen ari diren giza itxura gogoratzen duten forma batzuk galdeketa egiten dizkie bisitariei. “Zergatik” obrak jakin-mina sortzeaz gain bereizgarri sekretu bat gordetzen du. Diaz de Quevedok oso material bereziak erabili zituen hau egiteko: Cementos Rezolan dagoen desagite batetatik hartutako turutak, hagatxoak, txapa eta txatarra.



Iradoki

Mikel Cristti aparejadore izateko bidean zela, Oteizaren obra bat ikusteko eskulturaren kontzeptua argitu zion. Garatu duen obra minimalistaren bidez iradoki egiten du, erakutsi beharrean.

56

Antxon Ayestaranen omenez

Mikel Cristti

Kokapena: Añorga auzoa (1-H)

Data: 1990

Honako hau ez da zenbait urtez Donostiako Orfeoiko zuzendari izandako Antxon Ayestaran gogoratzen duen eskultura bakarra, baina badu berezitasunik: Añorgan dago kokatua, Ayestaranen auzoan, eta auzokideek Mikel Cristti (1955) eskultore donostiarrari eginiko enkargua da. Musikari eta horren hedapenari -musika milaka haurrengana hurbildu duten tailerrak sortu zituen, besteak beste-erabat emandako Antxon Ayestaranen memoria bizirik gordetzeko, artistak bi metrotik gora luze den bloke angeluzuzena sortu zuen, alderantziz jarritako partitura itxura duten bost zabaldura bertikalek gurutzatua.



Arteari emandako beste zenbait gune

Sortze-lanari irekitako espazio itxiak

Museoak eta kultur-guneak

Chillida-Leku Museoa

Zabalaga baserria
Jauregui Auz., 66. Hernani
Tel.: 943 33 60 06 / Fax: 943 33 59 59
chillida@museochillidaleku.com
www.museochillidaleku.com

Eduardo Chillidaren legatua toki zoragarrian dago, Zabalaga baserrian. Belardi zabaletan barreitatuta, tamaina handiko berrogei eskultura ikus daitezke, eta begientzako gozamen aparta da horien artean pasieran ibiltzea. Baserria XVI. mendeko eraikin zaharberritua da, eta horren barrualdean eskultorearen lan intimoenak ikus daitezke.

San Telmo Museoa

Zuloaga plaza, 1
Tel.: 943 48 15 80
www.donostiakultura.com

Zaharberritze lanetan murgilduta dago Donostiako museo nagusia. Garai batean domingotarren konbentu izandako eraikinean kokatua, eraikinak berak ere baditu interes handiko guneak, batik bat klaustroa eta garai bateko elizako hormak apaintzen dituzten Jose Maria Serten fresko ikusgarriak. Arte ederrei emandako aretoetan, berriz, izen handiko artisten lanak zeuden ikusgai -Grecorenak edo Rubensenak, esaterako-, azken bi mendeetako euskal pinturaren panoramika zabalarekin batera. Une honetan museoak ITXITA dago zaharberritze lanagatik.

Elizbarrutiko Museoa

Sagrada Familia Plaza, 11.
Hitzordua 677 446 627
www.demdonostia.com

Donostiako Elizbarrutiaik sustatutako museoaren ardatz nagusia eliz artea da. XIII. eta XX. mendeen artean eginko lanak ditu ikusgai.

Koldo Mitxelena Kulturunea

Urdaneta, 9
Tel.: 943 48 27 60
www.gipuzkoakultura.net

Gipuzkoako Foru Liburutegiaren eta areto nagusiaren ondoan, Koldo Mitxelena Kulturuneak erakusketa-egitarau egonkorra du. Eraikinaren sotoetako erakusketa aretoaren betekizun nagusia XX. mendearen bigarren erdialdeko artea hedatzea da. Ganbarak, berriz, era guztietako erakusketa txikiak hartu ohi ditu.

Arteleku

Kristobaldegia, 14
Loiola auzoa
Tel.: 943 45 36 62
www.arteleku.net

Sortzaileei eta sortze-lan garaikidea ikertzen dutenei irekita dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitako zentroa. Artelekuk artistei alokatzen dizkien estudioak ditu, eta artearen alde desberdinei buruzko taller, mintegi eta ikastaroak ere antolatzen ditu. Horrez gain, sarean lan egiten du beste entitate eta talde batzuekin.

Tabakalera KGNB

Mandasko dukearen pasealekua 52
Tel.: 943 01 13 11 / Fax: 943 01 13 12
www.tabakalera.eu

Tabakalerako fabrika izandako eraikin izugarrian Donostiako Kultura Garaikidearen Nazioarteko Gunea ari dira sortzen. Kultura bisualean oinarritutako sormen-eta berrikuntza-eremua izango da. Proiektua garatzen eta eraikina egokitzen ari direla, ekinean hasi dira jadanik erakusketa handien egitaraua abiaraziz.

Historiaren Etxea

Motako gaztelua (Urgull mendia)
Tel.: 943 42 84 17
www.donostiakultura.com

Motako gazteluan, Urgull mendiaren gailurrean, irekitako erakusketa-zentro berria hiriaren 800. urteko historia laburbiltzen saiatuko da.

Beste museo batzuk

Donostian, arteaz bestelako eremuetako museo interesgarri gehiago ere badira aukeran:

-Aquiriuma (www.aquiriumss.com)
-Itas Museoa
(www.gipuzkoakultura.net/untzimuseoa)
-Zientziaren Kutxagunea
(www.miramón.org)
-Rezola Zementuen Museoa
(www.museumcemento.rezola.net)

Erakusketa aretoak

Donostia Turismoako kideak diren erakusketa aretoak:

Sala Kubo - Kutxa Aretoa
Zurriola hiribidea, 1. Kursaal
Tel.: 943 01 24 00/Fax: 943 01 24 02
kubo@kutxa.es/www.kutxa.net

Donostiako beste erakusketa aretoak:

Koldo Mitxelena Kulturunea
Urdaneta, 9
Tel.: 943 11 28 93
programazioa@gipuzkoa.net
www.gipuzkoakultura.net

Kutxa Boulevard
Alameda Boulevard, 1
Tel.: 943 42 88 30
fkutxasalasboulevard@sarenet.es
www.kutxa.net

Gipuzkoako Argazkilari Elkarte
San Juan kalea, 27. 86. posta kutxa
Tel.: 943 42 13 86
sfg@sfg-ss.com/www.sfg-ss.com

Arteleku
Kristobaldegia, 14. Loiola auzoa
Tel.: 943 45 36 62
arteleku@gipuzkoa.net
www.arteleku.net

Okendo Kultur Etxea (Gros)
Nafarroa Hiribidea 7
Tel.: 943 29 06 72 / www.donostia.org

Casares Kultur Etxea (Altza)
Darieta Bidea, 1
Tel.: 943 35 11 49 / www.donostia.org

Altza Kultur Etxea
Pº Larratxo, 55
Tel.: 943 39 64 94 / www.donostia.org

Egia Kultur Etxea
Bastán, 21
Tel.: 943 29 15 14 / www.donostia.org

Ernest Lluch Kultur Etxea (Amara)
Anoeta Pasealekua, 7
(Anoetako futbol-zelaia).
Tel.: 943 48 19 19 / www.donostia.org

Larrotxene Kultur Etxea
(Intxaurreondo)
Intxaurreondo, 57
Tel.: 943 29 19 54 / www.donostia.org

Loiola Kultur Etxea
Aralar kalea, 17
Tel.: 943 45 46 05 / www.donostia.org

Lugaritz Kultur Etxea (El Antiguo)
Heriz Paealekua, 20
Tel.: 943 31 07 80 / www.donostia.org

Intxaurreondo Berri Kultur Etxea
Gaztela, 2
Tel.: 943 27 93 43 / www.donostia.org

Arte galeriak

Donostia Turismoako kideak diren arte galeriak:

Arteko galeria
Iparragirre, 4
Tel.: 943 29 75 45
arteko@artekogaleria.com
www.artekogaleria.com

Delta - Arte galeria
Zaragoza plaza, 3 behe
Tel./Fax: 943 46 44 54
deltarte2@deltaarte.com
www.deltaarte.com

Echeberria arte galeria
Zubieta, 20-Kontxa pasealekua, 11
Tel./Fax: 943 42 89 23
galeriaecheberria@galeriaecheberria.com
www.galeriaecheberria.com

Kur Art Gallery
Zurriola, 6
Tel.: 943 28 07 62
art@kurgallery.com/www.kurgallery.com

FNAC DONOSTIA
San Martin merkatalgunea
Urbietia 9
Tel.: 943 43 75 00
donostia@fnac.es / www.fnac.es

Donostiako beste arte galeriak:

Galeria Aitxerri
Reina Regente, 2
Tel.: 943 42 40 46 / Fax: 943 42 29 31
info@aitxerri.com / www.aitxerri.com

Espacio DV
San Martín, 5
Tel.: 943 42 91 11
espaciody@yahoo.es / www.coff.es

Ekain Arte Lanak galeria
Iñigo, 4
Tel.: 943 42 17 29
ekain-artelan@euskalnet.net
www.ekainartelanak.com

Estudio Arte galeria
Santxo Jakitunaren Hiribidea, 17 behe.
Tel.: 943 46 05 14

Arte Sagar galeria
San Jerónimo, 8
Tel.: 943 42 08 10
sugargaleria@telefonica.net

Noventa Grados galeria
Nagusia, 3
Tel.: 943 42 07 60
tienda@noventa-grados.com
www.noventa-grados.com

Argazkigintzaren Euskal Institutua
General Echague, 8
Tel.: 943 42 54 24 / Fax: 943 42 54 25
direccion@ivasfot.com /
books@ivasfot.com /
gallery@ivasfot.com / www.ivasfot.com